



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Ana Laura Alaez artistaren autoerreturatu *Glossy City* argazki handia, ezkerrean. Eskuinean, Rafael Agredanoren *Cavatina del contrapunto desasosegado*.

Artiumek artistaren interes eta motibazioetan sakondu du

Bilduma iraunkorra berritu, eta 1960tik aurrera eginiko lanak gaika sailkaturik aurkeztu ditu

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Erakusketa iraunkorra etengabe berritzeko asmoari fidel, Artiumek bere bildumako obraren beste aukeraketa bat aurkeztu du egunotan. Aurrekoan artearen garapen kronologikoak ezaugarritu zuen erakustaldia. Orain, berriz, artistek lan egite-rakoan dituzten motibazioak, interesak aztertu nahi izan ditu museoak.

Ia 80 koadro, eskultura, argazki eta instalazioek osatzen dute Hego aretoko erakusketa. Komunean duten gauza bakarra da 1960tik gaur arte eginikoak izan direla. Artelanen artean, oster, harremanak sortzen dira. «Hainbat hilabeteko ikerketa eta gogoeta baten ondoren, ondorioztatu dugu zazpi direla artistek erreferentzia egiten dioten taldeak», azaldu du Daniel Castillejo bilduma iraunkorreko arduradunak.

Sailkapen horrek gidatu du erakusketaren kokapena, eta honakoak dira taldeak: gizakia eta bere ekintzak, espresioa eta keinua, asmatu-rik istorioak, anbiguotasuna, galdera eta erantzunak, tresnak eta espazioak. Sail bakoitzean artista ezagun eta ezezagunak tartekatzen dira, bai eta garai eta estilo oso bestelakoak ere. «Ondorioa da artistak, haien jatorria edozein izanik, gauza antzekoei buruz mintzatzen direla», zehaztu du Castillejok.

Hego aretoan sartu bezain pronto, atalik handiena topatuko du bisitariak, hain zuzen ere,



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Luis Gordilloren *Tropical y complementos* koadroa.

Galderak eta erantzunak izeneko. Etengabe bere buruari edo inguruari buruz galderak planteatzen dituzten artistak dira. Castillejoren irudiko, «oso modan» gaur egun.

Atal horretan dira Ana Laura Alaez, Daniel Canogar, Eva Lotz, Jose Ramon Amondarain,

Juan Muñoz, Txuspo Poyo eta Juan Luis Moraza, besteak beste.

Aretoko erdialdea *Tresnak* sailak osatzen du. Jorge Girbau, Txomin Badiola, Eduardo Txillida, Luis Feito, Susana Solano edo Juncal Ballestinen lanak dira, ikusleak arteari buruz duen

PINTURA

Rafael Zabaleta: lehen ganbera erakusketa

Bilduma iraunkorra berritzeaz gain, lehenbiziko ganbera erakusketa prestatu du Artiumek, Rafael Zabaleta Jaengo margolariari eskainita. Ganbera erakusketekin, museo bilduman obraren bat duen artista baten ibilbidean sakonduko da. Horretarako, garai berean egin zituen hainbat artelan paratuko dira, 15 edo 20 bat, erakusketari txiki bat osatzeko.

Rafael Zabaletaren kasuan, 50eko hamarkadan eginiko marrazki bat eta pintura bat ditu Artiumek. Egun, gainera, *Hain hurbil*, *hain urrun* erakusketaren parte dira. Ganbera erakusketarako Castaño-Lasaosa familiak lagatako artelanak erabiliko dira. Guztira, 30 artelan inguru dira. Famatu egin zuten nekazarien pinturak eta biluzien marrazkiak daude.

pertzepzioa aldaraztea bilatzen duten artistak, objektuen bidez.

Nahasketa onuragarria

Hainbat garai eta jatorritako artistak nahasteak emaitza aberastu du, bilduma iraunkorreko arduradunaren aburuz, ikuslearen mesederako. «Bisitariak ki-

detasunak bilatzea nahi dugu, Artistaren interesak ez baitu garai konkreturik. Faktoreen ordenak, artean bederen, emaitza asko aldatzen du».

Espresioa eta keinua atalean Gabriel Uranga, Jorge Galindo edo Francisco Leiroren obrak daude, artistak artelanarekin duen harreman zuzen eta sakonaren eredu.

Espazioa, era berean, erreferentzia oso hedatua da. Sail horretan, askoren artean, Joxerra Melgizo, Joan Fontcuberta, Cristina Iglesias eta Perejaumeren pinturak, argazkiak eta instalazioak daude.

Gizakiaren ekintzak ere maiz artistentzako inspirazio iturri eta helburu izan dira. Esparru horretan aritu dira Joan Brossa, Miquel Barcelo, Carmelo Ortiz de Elgea eta erakusketan diren beste batzuk. Imajinarioarekin lotura handiagoa dute, bestalde, *Asmatu-rik istorioak* saileko obrak. Miguel Angel Campano, Alfonso Orue, Txema Cobo edo Joan Miroren pinturak karga narratibo esanguratsua biltzen dute. Artistei egotzi zaien anbiguotasunaren lekuko, berriz, Juan Usle, Antoni Tapes, Rafael Ruiz Balerdi, Dario Urzay edo Luis Gordillo dira.

2.000 artelan baino gehiago

Javier Gonzalez de Durana Artiumeko zuzendariak azaldu duenez, dagoeneko 2.000 artelan baino gehiago biltzen ditu museo funtsak. Iragan apirilean, museoa zabaldu zenean, 1.600 obra inguru zituen, eta hazkunde ikusgarria gertatu da urteak aurrera egin ahala. «Bilduma egoteak museoa sortzea eragin zuen. Orain, museoak bilduma garatzea ahalbidetzen du», gogoratu du Gonzalez de Duran.

Erositakotik aparte, Juan Redon, Rafael Zabaleta eta Gure Artea sarien gordailu izatea lortu du Artiumek. Halaber, obrak aukeratzen ari dira Injuvetik.